

...eta Kitto!

1988ko Abendua. 1./Alea.

EIBARKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA.

TXAO!

TXAO! 88, mila bederatziehuneko. Ongi Etorri 89, bimilagarrenetik hurbilagokoa.

Batzu zaharrago sentituko dira/gara. Beste batzu helduago. Batzuk urteak izkitatuz ibiliko dira/gara. Izango dira, ordea, urte bat gehiago kontatzeko arro sentituko direnak.

Urteen joanaz gogoratzen garenean nostalgia pizten zaigu: «Gure sasoi»; «Gure garaian» eta horrelako espresioak kanporatzen ditugu. Iragana denboraren joanean joan zaigula, joaten ari zaigunaren jabe izan behar dugu. Hori horrela bada «gure sasoi» eta horrelakoak esateak ez du aparteko garrantzirik edo behintzat, ez diogu eman behar, denboraren gurpilak pinoi fijoak dauka eta.

Baina ez gaitezen dramatiko jarri, garai bakoitzak bere erakarmena eta interesa dauka eta. Denak dira desberdinak baloreak, ohiturak... aldatu egiten dira. Beraz bakoitzak bere garaia bizi behar du, eguneroko intentsitatean. Hori da garrantzitsuena. Hori egiten duenak ez ditu bere garaiak besteenak kritikatzeko erabiliko.

88ari txao eta 89ari ongi etorri esanez denboraren korriente etengabe jarraituko dugu.



AGUR T'ERDI

Ez da inuzente eguna, ez pentsa. Ametsetan ere ez zaudete. «... eta kitto!» daukat izena. Zer moduz tripa-festa jai hauetan? Zer moduz digestioak? Ez kezkatu astun samar baldin bazaude. Noizbehinka horrela sentitzea kezkatzekoa izan beharrean zoriona, satisfazioa... sentitzen ei da eta.

Nik nahi dudana da zure astuntasun ala astunkeria hori, nire aurpegitxo hau eta barruko tripa irakurritz arintzea. Edo txarrean ere zure astun... ez gehitzea.

Orain arte arte irakurri banauzu segi, oso seinale ona da eta.

Agur honetaz aparte neure aldamenen duzu 1989garren urterako opa dizuguna. Barruan, 2garren orrialdean Eibar-ko Euskararen egindako elkarrizketa bi daukazu eta azpian lehiaketa interesgarria. Ez ahaztu, liburu interesgarriak, diskak, komikiak, irabazi nahi badituzu segi itzatu atal horretako gorabehera eta aginduak. A! eta parte hartu.

3garren orrialdean Euskara Batzordearen iharduera edo aktibitatearen berri daukazu, hil honetan prestatutakoa. Baita ere zenbait efemeride jakingarri eta albiste kuriosoak. Hor izango duzu, bestalde, zeuk idatzi nahi baduzu

gordetzen dizugun txokoa. Eta orrialdearen amaieran TXOMINTXOren abenturak.

Aldizkaritxo hau amaitzeko gai potoloa. Oraingoan Gabonetako kontsumoari buruzkoa eta honi lotuta kalean jasotako zenbait eritzi. Azkenik, eta datorren hilabeteari begira kultur eta kirol arloan iragarrita edo anunziaturik dauden zenbait ekitaldi.

Horixe beraz, gustoa baduzu, gure lehen ale honetan irakurtzeko eskaintzen dizuguna, menu arina, komeni zaizuna.

Bestaldeko argibideak

Edukiaren edo kontenidoaren berri eman ondoren aldizkari hau dela eta, zenbait gauza adierazi beharra daukagu. Lehenengo eta behin, lehen zenbaki edo numero honen antzeko giroan jarraitzeko asmoa daukagula ideia interesgarriagoak sortzen ez dizkiguzuen edo heltzen ez zaizkigun bitartean.

Hizkuntzari dagokionean, orrialde bat Eibarko Euskararen eta besteak Euskara Batu samur eta interesgarrian egingo ditugu lanak.

Helburuei buruz esan beharra dago euskaraz ere irakurtzeko ohitura sortu nahi dugula Eibarko, geure arteko, gaiak, erabiliz gehienbat. Irakurtzeko ez ezik idazteko ohitura ere onartua izango da. Ea bada, animatzen zareten eta kolaboratzen duzuen.

Lehen ale hau eta ondorengoak, behintzat 1989ko hamabiak, eibartar ikasle taldetxo batek egiteko konpromisoa hartu dugu. Dena den, norbait gehiago animatuko balitz taldera betor.

Gure asmoa hileroko igandean zurekin kioskoan topo egitea da, irakurlea. Horrezaz gain Euskaltegietan, zenbait tabernatan eta ileapaindegi batzutan ere aurkituko nauzue. Eta, jakina, tripa-festerako elkartean.

Horrenbestean bukatzeko asmoa neukan. Badakizu, gai serioetan (?) sartu ezkerreko digestioak eta osterantzekoak ere ahaztu egiten zaizkigu. Zer moduz doakizu? Zer inpresio? Beno, gustagarria gerta dakizula irakurketa. Hala bedi!

EUSKARA BATZORDEAREN BERRI

Hurrengo alean, 2. «...eta kitto»n 1988ko balantze orokorra egingo badugu ere urte honetako azken iharduera edo aktibitatearen berri ematea aproposa dela uste dugu, azken batean gure departamenduaren bilerak irekiak badira ere herri zabalari ere egiten denaren informazioa zor diogu.

Euskaraz Oparitzeko

Hilabete hau berezia denez opari asko egiten da. Hori dela eta 33 Udalen artean «GABONETAN... EUSKARAZKO OPARIAK» kanpainatxoia prestatu dugu. Slogán-hori buru delarik krisma dotorea banatu dugu ikastetxe, Euskaltegi eta opari-dendetan. Horrekin batera Durangoko Azokan aurkeztu diren nobedadeen zerrenda ere banatu dugu. Ea bada euskararen normalizazio-bidean ohitura bihurtzen dugun Euskarazko liburu, diska kasete, jostailuak... oparitzea, geure-geurea dena. Eta egiten ditugun eskutitzak, tarjetak, etab euskaraz zergatik ez?

Bestelakoak

Garai honetan kontsumo arloan egoten den mugimendua dela eta eraso handia



jasotzen dugu eta, zoritxarrez, gehienbat erdaraz. Horri aurre egin nahian Gabon inguruko hiztegitxoia ere atera dugu. Hau merkatal arloan banatu dugu Euskara Zerbitzuaren zerbitzu-eskaintza eginez: Itzulpen-Zerbitzua, Zuzentze-Zerbitzua eta Aholku-Zerbitzua, hain zuzen ere.

Bestalde, 1988ko Egutegiak ere, handiak eta txikiak banatu ditugu. Handiak despatxu, taberna, bulego, ikastetxe, euskaltegi... eta abarretan banatu ditugu. Txikiak, ostera, 15.000 egin direnez eskolume

bakoitzari bana emango zaio eta bestelakoak, gainontzekoak, han-hemenka banatuko ditugu ahalik eta zabalkunde handiagoa emateko oso praktikoa delako Erabilpen handiko telefono-zenbakiak dauka.

Amaitzeko, «...eta kitto»k eskaintzen didan parada edo oportunitatea aprobetxatuko dut Urtarrilaren 2, 3, 4, eta 5ean egingo diren ihardunaldiak gogora erazteko. Ikuz ezazu, mesedez, azken orrialdean datorren agenda. Hor duzu programia. Ihardunaldi hauen helburua teoria arloan, gero praktika aberatsagoa izan dadin, jaztea da.

A! eta ia-ia ahaztu egin zait «... eta kitto» aldizkari hau ere azken hilabete honetan egin dugula.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Adiskide! Hemen gaituzu zure partizipazioaren zain. Eritzi guztiei irekita gaude eta beharrezkoa zaigu, behintzat honako txoko hau betetzeko zure laguntza.

Elkarrizketa interesgarriren bat, dokumentu berezirik, albiste xarmentgarrikerik edo, bestela, ideia berririk, gure izuari buruzko komentariorik baduzu, ez gehiago pentsa eta idatziezaguzu helbide honetara: EIBARKO UDALA. «... eta kitto» ALDIZKARIA.

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

Eibarko Udaltzatea:	71.68.45
Euskara Zerbitzua:	71.80.64
Udal Eskutegia:	70.09.12
«AEK» Euskaltegia:	71.13.79
Udaltzaingoa:	71.15.25
D.Y.A. (Eibar):	71.84.80
Laguntza Gela / (Cuarta-Socorro):	71.39.92
Anbulantzia / Anbulantzia:	71.36.46
Su-Hiltzaileak (Udaltzaingoa):	71.15.25
Juzgado:	12.16.02
Maternitatea:	71.17.32
Poliziakidea:	71.33.95
Konsumatzaile-Bulegoa:	71.38.43
Enplegu-Bulegoa:	12.05.06
Haur-Ama Zentroa / (Materna-Infantil):	70.28.58

VILLANUEVA DE SAN ANDRES / SANT ANDRES DE EYNBAR / EINBAR / SANT ANDRES DE HEYBAR / HEIBAR / EYBAR / HEIBAR

Abendua eta Urtarrila

1808 eta 1813 tartean Espainia eta Frantziaren artean Independentziaren gerratea izan zen. Gerrateak iraun zuen bitartean eta Eibar frantsesten eskuetan egon zen bitartean, gure komunitateak gastu handiak jasan zituen bere borondatearen aurka. Batez ere 1808ko Irailetik 1809ko Urtarrilera Eibarko jendeak garaia, okela, artoa, baba, lasto eta pattarra frantsei ematera derrigortuta ikusi zen.

1896ko Urtarrileko lehenengo egunetan CASINO ARTISTA EIBARRERES deiturikoa inaguratu zen.

1909ko Abenduan uholdeak egon ziren Eibarren, galerak nahiko handiak izan ziren: Arraguetako zubia urez estali zen eta bere ondoko bidea urgaineztatu zen. Ego ibaiako urak hainbeste igo zirenez alboetan zeuden etxeak urgaineztatu ziren, lantegi askotako makinak izorratu ziren. Untzaga kalean ezinezkoa zen ibiltzea, eta «2 de Mayo»ko etxeak jausteko arrisku handian egon ziren. Uholdea arratsaldean izan zen eta ez zen egon hildakorik.

1924ko Urtarrilaren 30an, Zuloagarren jauregiko azkeneko pisuan, «CLUB DEPORTIVO EIBAR»ek bere lehenengo bilkura ospatu zuen.

1920ko Abenduaren 19an hauteskunde orokorrak ospatu ziren, hona hemen boto desberdinak:

KANDIDATOAK	ALDERDIAK	BCTOAK
Borbón	Independientea	687
Celaya	PNV	642
De Francisco	PSOE	380
Boto solteak		9
Zuriz		20


Burgoseko lehengo epaiketa zela ta, Eibarren istilu gogorrek gertatu ziren polizi eta manifestanteen artean, eta istilu baten zenbait pertsona suzko armagaitik zaurituta suertatu ziren. Zauritutako bat, Roberto Pérez Jauregi, 21 urteko gaztea, handik lau egunetara hil egin zen: 1970ko Abenduaren 8an. Bere entieru zibila omenaldi laiko bihotzekoa izan zen, baina herriak apenas hartu zeban parte, Eibar guardia zibilez materialki hartuta zegoenez.

MARMARREAN ETA AUTUAN

Argiak eta zuhaitza: joan den urteetan zuhaitzen mozketak zirela medio iskanbila ugari sortu ziren; eta aurten udaletxea eta dendarien arteko akordio bat dela medio kalean argiak ipintzea erabaki dute, horrela Untzagako plazan jartzen zen pinua mendian lasai utziz.

Dendariak bonbilen instalazioari dagokion ordaindu dute, eta udaletxeak argiaren gastua. Halere, erdiko kale batzuk argirik gabe ikusi ditugu, adibidez: Julian Etxeberria. Ez dakigu zer gertatu den, behar bada bertako dendari guztiak ez dira akordio batetara iritsi.

Aipatzekoa da herriak gabon kutsu handiagoa hartu duela argiekin, zuhaitzak Untzagako plaza bakarrik apaintzen zuelako, eta al-diz, argi hauek hiriko kale nagusia: apaintzen dituztelako. Beraz, zoriok dendari eta udaletxeari ideia honegaitik.



PAULINO, EIBARTAR ARTISTA BAT

Ofizios grabadorea den artista honek egurrezko eskultura eta pintura ere egin dau. Bere bizitzan lan eta lan egin daben artista honek gaur egun ere «JO TA EGURRA» lan egiten jarraitzen dau.

Larriñaga eta Longartetar Paulino Eibarren jaixo zan 1918-ko apirilaren 13-an, aita elgoibartarra eta ama bizkaitarra ziala.

Bere estudioan egon ta gero esan bihar dogu benetako artezko gauzak ikusi doguzala. Paulino hasieran grabadore industrialia zan eta estanpaziño artistikuak eitxen ebazen: kuberterixia, medallerixia, eta beste batzuk eitxen ebazen. Txiki-txikia zanetik gustetan jakin egurrakin ibiltzia eta Jesus Berezi-bar edo «Txopoa» deituaren ikaslia izan zan, Txopoa be eibartarra zan eta Venezuelan hil zan orain dirala bost urte inguru.

13 urtekin hasi zan lanian baina hamaika hilabetetara lan barik zeuan «modernismua» etorri zalako mueblen mundura eta mueble guztiak lixuaq hasi ziran eitxen. Horregatik Paulinok eitxen ebazen muebliak ez ziran saltzen tallatuak euazalako. Orduan grabadore moduan hasi zan lanian Cayetano Carreaganian: matrizerixia eta estanpaziño artistikua eitxen eban hor.

Geria be allegau zen Paulinondako eta Gernikara joan izan bihar izan zeban joierixa batetan lana eitxera, etahan egin ebazan bost urte inguru. Gero Durangon be egon zan beste urte bete bat edo ta azkenian Eibarrera etorri zan eta bere kontura lanian hasi zan, pintura be hasi eban berrogei urte inguru zituata, dibujua be eitxen eban edade horretan; eta halan be tallerra ipini eban.


Sariak eta bere tendentzia artistikua

Aire librian pintura lehiaketetan hartu dau parte eta sarixak be irabazi ditxu: lenengua izan zan Mundakan 1966-an, bigarrena Zarautzen 1969-an eta beste sari edo premio batzuk izan ditxu.

Bere lanak Euskal Herriko Pintura Eskolan pausuak jarraitxu ditxu eta eibartarrek asko estimatzen dabe bere lana.

Bere pintura eta eskultura afiziñua dala ta Eibarren dauan «Goruntz» Artisten Taldian parte hartzen dau.

Damaskinaurik ez dau ixa ezebe egin, bakarrik pistolaren batentzat dibujuren bat. Baina esan behar dogu guk pentsatzen dogula Paulinori ez jakozela pistolak gustatzen, baina hortaz aurrerago egingo dogu berba.



Esposiziñuak ere egin ditu Eibarren, Bilbon, Donostian, Santurtzin...

Paulino, bidaiari amorratua

Gure herriko pertsonaia jakintsu eta langile honek ezagutzen dau mundua eta batez be gustatzen jakon herrietako bat Italia da. Orain dala denpora gitxi bidaia bi egin ditu Italiara. Venezia da berak asko maitatzen daben kapitela eta bere estudioan ikusi dogu, Venezia karnabalak eta bertako disfrazak gai moduan hartuta, egindako koardro koloretsu bat.

Veneziaz esan dosku baita be itsasuan marea bizixak dauazenen bertako kalietan ura sartzen dala. Baina bere berbak izan dia: «Italia zoragarria da, eta hango artia dauazen polixenetarikua».

Preguntau doutsagunian inspiraziño moduan zer erabiltzen daben esan dosku danetik pixka bat baina asko erabiltzen dabezala fotografixak eta batez be imazinaziñua.

Bere tailerrean ikasleak ditu, eta honek egurra lantzen ikasten dabe. Ikasle honek artista batzuk dira eta gauza oso politxak eitxen dabez. Baina hori ez da gauza gatxa edo zaila Paulino moduko maixu bat euki ezkeru.

AURORA BASKARANEKIN ORDUBETE

Orain dala egun batzu zenbait lagun Aurora Baskaran alkatesarekin berba egitera joan ginen. Berarekin alkatetzan sartu, eta berehala Eibarko gai batzuei buruz berba egiten hasi ginen.

- Kultura eta gaztetxeak
- Erreziklajea eta hortikultura
- Drogaren arazoa («lista beltza»)
- Bariantea
- Paktoaren apurketa
- Gabonetarako aktibitateak

Kulturari dagokionez uste du-gu Eibarren ez dagoela ekintza askorik, eta prezioak ez direla herrikoiak izaten (adibidez teatro). Zer uste duzu honetaz?

Nik uste dot ekintza asko dagozela, arazoa da jendeak ez dabela parte hartzen. Adibidez, Indalezio Ojangurenen argazki erakusketa dela eta, fotografixaren gainean hitzaldi bat egon zan areto nagusixan eta oso jende gitxi agertu zan; eta gauza bardiña askotan gertatzen da. Gauza ona izango zen jende gaztea hona etortzea eta denon artean kolaboratzea.

Prezioekin pasatzen dana, ez dot uste garestiak direnik, baina batzutan izan leike gazteen poltsikoentzat garestixa gertatzea.

Jende gaztearen artean askotan gaztetxearen gainean egiten da berba. Zer gertatzen da hauekin? Zein da zure eritzia?

Bai, nik gauza bat esango deutsuet: Udaletxeak INEM-ekin konbenio bat egin dau, Vista Alegren dagoen AYA tallerrean ehun eta hamar neska-mutilentzat hiru urtetako eskola-taller bat egiteko. Hor ofizio bat ikasi leike (arotza, albanila, hojalaterua...), baina ondionak erdixak ez dira apuntatu, eta danok dakigu Eibarren gazte morduak dagozela ez dakixenak zelan pasa denbora.

Taller horretan 8.500 m2 dagoz, eta ofizioa ikasi ondoren gazte honek errekuperatuko dabe edifizioa, eta edifizioa kultur etxea izango da; hor joango da bibliotekia, dibujua, zeramikia... Edifizio hau lortzeko problemiak daukaguzen arren, azkenian lortzeko esperantza daukagu.

Gaztetxeak dauden lekuetan nik bakarrik problemak ikusi ditut, folloiak armatzen dabez. Niri hemen ez jata tokatu baina Ermuan eta Elgoibarren egon dira problema demasak.

Nola ikusten dozu drogaren arazoa, eta zer izan zen «lista beltza» haura?

Drogaren problema oso gatxa da, baina ez bakarrik Eibarren. Lista beltzari izugarritzko inportantzia emon jako. Kontua holan izan zan: sanidadekoek lista hau lortu zeben jakitzeko ze zituaziño zeuan herrixan eta estudio bat egiteko; baina ez zan inoiz publikoarendako egin. Kontzejal bat kasualitatez lista honen existentziaz enteratu zen eta hortik sortu zan folloi guztia.

Erreziklajea etxea desagertu egin da, eta hortikulturazko ikastaroa orain amaitu ei da. Zer esan ahal dozu honetaz?

Bai, erreziklajeko etxea kentzen dagoz zen han tallerra bota arte probisional zeuan. Erreziklajea gehixen atera zeben batziarren; hor erreziklajea gitxi egin eta gitxi saldu dabe. Lortu izan bazeben saltzia horrek bizia eukiko eban, baina ez zeben saltzen larregi.

Gero mataderoan be egon ziran, baina nik ez dot ikusi gauza handirik egin debenik. Orain Mankomunidadearekin hasi behar dira, kartoiak batu eta holako gauzak egin behar ditsue.

Bestalde, hortikulturako kurtsilloa amaitu danez, Udaletxeak heurrekin zeukan responsabilidadia amaitzen da, eta Alfako terrenoan jarraitu nahi badabe orain heurak konpondu beharko dira Alfarekin. Dana dala, heurak geratuko dira Eizagako inbernaderoakin, eta nahi badabe biharra egin eta abilidadea badake hau geratzen jakue.

Barianteari buruz, Aurora Baskaranek esan zezkun lehengo normak aprobatu egin behar direla. Asmoa da bariantiaren lehengo fasea Azitainen hasi eta Matxarixan amaitzea, holan kale honetan dagozen trafiko arazoak zeozelan konpondu leikez. Gainera, bariantiarekin Matxariko poligono industrialak bizia hartuko dau, Aurora Baskaranek ziñoenez. Bigarren fasean bariantea Arrateko bideraino joango litzateke, baina honen proiektua ondiokan egin barik dago. Barianteari, neurri batian, Eibarko trafikorearen arazoa konpondu leikela uste dau alkatesak, baina Eibarrek berez dituan zailtasunak dirala eta, ezin dala milagrorik espero.

Orain dala gitxi pilpilean egon dan gai bat paktoaren apurketa-rena izan da. Zernolako ondorioak izan ditu honek?

Nik uste dot, mailan batean, denok euki dogula kulpaa pixka bat. Coliseoaren inguruan beti egon dira problemak, baina guk (paktoaren apurketa-oren ondoren bardin jarraitzen dogu; kontzejalen arteko erlazioak bardin jarraitzen dabe ez da egon ezer pertsonalik.

Gabonetarako zerbait berezirik antolatu dozue?

Euskara potentziazteko, aktibitate morduak dagoz batez be EGB-koentzat. Euskarako departamentuak kanpaina oso polita egin dau umeak euskaraz hitzegiteko ohitura hartu deixen, eta horretan lan asko egiten dihardute.

Beste alde batetik, Indalezio Ojangurenen esposiziñua, hitzaldiak e.a. dagoz. Esposiziño hau urtiaren azkenerarte egon behar da eta gainera fotografixak astero aldatuz joango dira.

LEHIAKETA

Ba al dakizu non dagoen, zein kaletan, argazkian agertzen den irudi hau? Beno, hori badakizu eta liburu sorta bat irabazi nahi baduzu ez itxaron gehiago, idatz ezazu lehenbaitlehen kartatxo bat zeure izena, helbidea, telefonoa eta adina emanez honako helbide honetara: EIBARKO UDALA-EUSKARA ZERBITZUA. «... ÉTA KITTO LEHIAKETA».



Urtarrilaren 18rako heltzen diren eskutitz asmatzaileen artean zozketa egingo dugu. Aurrez esaten dizuegu oparitutoko ditugun liburuak adinari egokituak izango direla. Ez bada, anima zaitzete eta partehartzea erraza denez... **SORTE ON.**

KONTSUMOAK, GASTATU, KONTSUMITU EGITEN GAITU

Pasatako egun hauetan guztiok utzi ditugu gure poltsikoak hotzikara izugarriekin. Sardinak bixiguaren prezioan ordaindu ditugu, bixigua kabiarraren prezioan eta kabierra... petroleoa izango balitz bezala.

Gauza nabaria da batzuentzat Abuztua Abendua dela edo behintzat Abuztuan irabazten ez dutena Abenduan berreskuratzen dutela.

Halere, gaur egun, inork ezin ditu gabon jaiak asmatu gauza guzti hoiak izan gabe, hau da, beharrezkotzat hartzen dira gabonak ospatzeko txanpana, mazapanak, jostailuak, parfumeak...

Baita ere esan beharra dago (gure ustetan behintzat) garai hau dela benetan egokia «argiak eta azkarrak» negozioa egiteko; eta honelako egoeren aurrean guk geure burua nahi ta nahi ez nahiko harrapatuta ikusten dugu, joku horri ez diogu irtenbide egokirik bilatzen.

Telebistak behin eta berriro adierazten dituen gauzak begi-itxiz erostea legoke eta baita, zergaitik ez, jendeak

bere auzokideak baino gehiago izateko duen ohitura zahar eta nazkagarria kontsumoaren gaixotasun kolektibo honen barnean.

Kontsumitzaileen erakundeak behin eta berriro ohartzatzen gaituzte kontu izan behar dugula erosketak egiterako orduan, baina beti dendan bukatzen dugu dagoen guztia erosteko asmoarekin, nahiz eta gero izaten diren kontuak erositako gauzek erabilpenik ez dutelako; baina azkenean beti bukatzen dugu tripa bete-betearekin, baina, arraioa! ez dugu tokirik utzi langostino goxo hoientzako...

Zelan izan leike errege ondoren, telebistan ateratzen diren korbata eta koloniarekin atezainaren alabak igogailuan goazenean gu ez asaltatzea? Beno, gabon hau zoriontsua da eta ziur datorren urtea ere berdina izango dela, hori bai: datorren urtea beti gertatzen den bezela zertxobait garestiagoa izango dugu: «urte berria eta prezio berriak».

ZER USTE DUZUE GABONETAKO KONTSUMOARI BURUZ?



ANASTASIO ZAZO. 51 URTE.
Gaztain saltzailea (langile borrokak-tua)

Gaur eguneko bizitza oso garestia da, orduan langileok lan pila bat egin behar dugu soldata eskas bat lortzeko. Larregi gastatzen da Gabonetan, baina nik zoriotzarrez ez dut horrelako aukerarik.




NEREA. Ikaslea. 17 urte
Bakoitza libre da nahi duena egiteko eta gastatzeko. Aberatsak nahi dutena gasta dezakete, eta pobreak hor konpon!!




SONIA ETXEBERRIA. 25 urte.
Ekonomilaria
Janarian egiten den kontsumoa beharbada larregizkoa da, pixkabat abusatzen da. Baina erregaloetan egiten dena ez da gehiegizkoa, urtean behin egiten bait dira.



AMALIA. 80 urte. Etxekoandrea
Asko gastatzen da, daukaguna baino gehiago. Influxentekeria bat iruditzen jata. Bokadillo batekin nahikoa izango litzateke.



JUANJO. 30 urte. Irakaslea
Nik pertsonalki gogoia dudanean egiten ditut gauzak (ez Gabonak direlako). Nire gorputzaren zikloa jarraitzen dut. Ez dut asko gastatzen janaritan; ez diot garrantzirik ematen. Ihaz nere lagun baten etxean egon nintzen arraultza frituak jaten. (Ez dut tradizioz jarraitzen).



ANDONI. 24 urte. Langilea
Derrotxe bat iruditzen zait. Hobe litzateke urtean zehar hobeto jatea horrelako gehiegikeriak egitea baino.



FRANCISCA PEREZ. 50 urte.
Etxekoandrea
Nahiz eta prezioak oso altuak izan, niri ez zait asko inporta, garai honetan ilusioarekin prestatzen duzulako dena. Gainera, familia oso elkarturik sentitzen da Gabonetan, urtean behin egiten den gauza bat denez, pena merezi du.

URTARRILERAKO AGENDA

KULTUR ARLOKOA:

• HIZKUNTZA / HEZKUNTZA JARDUNALDIA

— Urtarrilaren 2an:

J. M. SANCHEZ CARRION «Txepetx».
J.L. ALVAREZ ENPARANTZA «Txillardegia».

Gaia: espazio elebidunak aztertze urrats nagusiak.

— Urtarrilaren 3an:

Finlandia: TIMO RIHIO.
Laponia: MARJUT AIKIO.

Gaia: teoriatik abiatuz, esperientzi zehatz bat aztertuz.

Finlandiako kasua. Hizkuntz berreskurapena.

— Urtarrilaren 4an:

Mallorca: JORDI VALLESPÍR.
Catalunya: JOSPE MISSE I FERRAN.

Gaia: Udalen jarrera hizkuntz politikarekiko.

— Urtarrilaren 5an: Euskadi:

FITO RODRIGUEZ
PEIO AIERBE.

Gaia: Euskal Herriko egoeraren azterketa. Alernatibak.

IHDUNALDIAK NON?

Eibarko Unibertsitate Laboralean.

— Urtarrilaren 5ean: Erregeen kabalgata.

— Urtarrilaren 28an, arratsaldeko 7,30-tan kontserbatorioan: Kitarra kontzertua.

Parte hartzaileak:

— Bienvenido Rodríguez.
— Toru Kannari.

— Urtarrilaren 15-etik hilabetea bukatu arte:

ERAKUSKETA:
Paisajistas Bai-Sala.

KIROL PARTIZIPATIBOA:

Hilero sortzen dira taldeak honako ikastaroak egiteko:

- **Mantenimendurako gimnasia:** egunero goizez 8-etatik 9-etara eta arratsaldez 7-etatik 9-etara.
- **Judo:** astearte eta ostiralez 18-etatik 19-etara.
- **Karate:** astelehenez 6-etatik 7-etara.
- **Aerobik:** astelehen, astearte, ostiral: 19-etatik 20-etara eta 21-etik 22-etara.
- **Gin jazz:** astearte eta ostegunez: 20-etatik 21-etara.

NORK — ZER

- **Koordinatzailea:**
Fernando Muniozguren
- **Erredakzio-taldea:**
Ana Aizpurua
Idoia Arrillaga
Mirella Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren
- **Argazkilariak:**
Iñigo Santos
José Valderrey
- **Maketazioa:**
José Valderrey
- **Inprimaketa:**
ORAIN. S.A.
- **Fotokonposaketa:**
ANTZA